

Merkatuko segmentazioa:

Gure produktua **jende eta adin guztietara zuzenduta** dago, hots, gure **merkatua masiboa** izango da (gure produktuarekin antzeko beharrak dituzten **edozein adineko pertsonak asetzeko helburua** daukagulako) .

Horregatik gure **produktua egokituko dugu bezero-segmento desberdinetara** ezaugarri desberdinetaz baliatuz.

Hurrengoak dira **ezaugarriak**:

- Kolore eta material ezberdinak daudenez pertsona bakoitzak **nahiago duen produktua aukeratzeko gai** izango da, adibidez **==>** kolore asko duten poltsikoak **umeentzako** izan daitezke eta **helduentzako** produktuak desberdinak izango lirateke, **materiala kontuan hartuta** (larrua, adibidez).
- Gure produktua **bai neskek eta bai mutilek erabili** dezakete, baina **sexuaren arabera bereizketa** egongo da **==>** koloretan, forman, eta jantziaren arabera.
- Pertsonen **diru sarrerek ez dute eragin handirik** izango **==>** produktu **merkea** izatea espero da. Horren helburua **==>** pertsona guztientzako **eskuragarri** izatea da.
- Bizilekuaren aldetik gure produktua edozein herrialdetan lortu ahal izango litzateke, web gunean erostean, zure bizilekura bidaliko genizukeelako.
- Gure produktuaren **erosketa maiztasuna, hasieran, ez da oso handia izango**, eta horregatik **==>** gure produktuaren **aurkezpena zaindu** beharko dugu, baita haren **ezaugarri teknikoak** ere.